Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3842

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 10ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Zamudioko (Bizkaia) Robotiker Fundazioaren estatutuetako 18. artikuluan egindako aldaketa inskribatzeko dena.

Robotiker Fundazioak bere eraketa-estatutuetako 18. artikuluan egindako aldaketa onartu eta inskribatzeko espedientea ikusi da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2010eko martxoaren 9an, Javier Cabezudo Puyo jaunak Robotiker Fundazioaren izenean eta ordez izenpetutako eskabideari sarrera eman zitzaion Justizia eta Herri Administrazio Sailean. Eskabide horren bidez, Fundazioaren Patronatuak hartutako erabakiak eta titulu publikoan agertzen diren hainbat patronoren ordezkari diren pertsona fisikoei dagokienez egindako aldaketak inskribatzeko eskatzen da. Eskabideari ondokoak erantsi zaizkio:

Patronatuko idazkaria den Julio Salazar Orive jaunak Bilboko notario Ignacio Alonso Salazar jaunaren aurrean 2010eko martxoaren 5ean emandako eskritura publikoaren bi kopia baimendu (protokolozenbakia: 445). Julio Salazar Orive jauna Gamesa Innovation and Technology SL Patronoaren ordezkari pertsona fisikoa da eta Robotiker Fundazioaren izenean egin du aipatu eskritura publikoa.

Eraketa-estatutuetako 18. artikuluan egindako aldaketa onartzeko 1999ko abenduaren 15ean Robotiker Fundazioaren Patronatuak hartutako erabakia, eta baita Patronatua aldatzeko ondoren zehazten diren egunetan hartutako beste erabaki batzuk ere erantsi zaizkio aipatu tituluari: 1999ko martxoaren 9an eta urriaren 27an; 2000ko ekainaren 22an; 2001eko azaroaren 6an; 2002ko urriaren 17an; 2004ko urriaren 28an eta abenduaren 16an; 2005eko apirilaren 14an, ekainaren 23an, urriaren 20an eta abenduaren 15ean; 2006ko urriaren 19an eta abenduaren 14an; 2007ko urriaren 17an; 2008ko apirilaren 10ean eta ekainaren 26an, eta 2009ko urriaren 8an; patrono batzuen ordezkari pertsona fisikoen hainbat aldaketa ere jaso dira.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko zerbitzu teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, ebazpen-proposamena egin. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

3842

ORDEN de 10 de mayo de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe la modificación del artículo 18 de los estatutos fundacionales de la Fundación Robotiker, de Zamudio (Bizkaia).

Visto el expediente de la Fundación Robotiker de aprobación e inscripción de la modificación del artículo 18 de sus Estatutos Fundacionales, atendiendo a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– Que con fecha 9 de marzo de 2010 tiene entrada en este Departamento de Justicia y Administración Pública solicitud firmada por D. Javier Cabezudo Puyo, en nombre y representación de la Fundación Robotiker de inscripción de los acuerdos adoptados por el Patronato de la Fundación y de modificaciones de las personas físicas representantes de varios Patronos contenidos en el título público que adjunta:

Dos copias autorizadas de la escritura pública otorgada por D. Julio Salazar Orive, persona física representante del Patrono Gamesa Innovation and Technology, S.L. en el cargo de Secretario del Patronato, actuando en nombre y representación de la Fundación Robotiker, el día 5 de marzo de 2010 ante el Notario de Bilbao, D. Ignacio Alonso Salazar, bajo su número de protocolo 445.

Dicho título incorpora el acuerdo adoptado por el Patronato de la Fundación Robotiker en su reunión de fecha 15 de diciembre de 1999, de modificación del artículo 18 de los Estatutos Fundacionales; además de varios acuerdos sobre modificación del Patronato adoptados en la siguientes fechas: 9 de marzo y 27 de octubre de 1999; 22 de junio de 2000; 6 de noviembre de 2001; 17 de octubre de 2002; 28 de octubre y 16 de diciembre de 2004; 14 de abril, 23 de junio, 20 de octubre y 15 de diciembre de 2005; 19 de octubre y 14 de diciembre de 2006; 17 de octubre de 2007; 10 de abril y 26 de junio de 2008; y 8 de octubre de 2009; así como finalmente, diversos cambios en los representantes personas físicas de varios Patronos.

Segundo.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos del Registro de Fundaciones del País Vasco, que a su vista han elevado Propuesta de resolución, atendiendo a los siguientes.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko 36.3 eta 40. artikuluetan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4. artikuluan; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko, Lehendakariak maiatzaren 8an eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) paragrafoan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen.

Aipatu artikuluak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Zamudioko (Bizkaia) Robotiker Fundazioaren estatutuetako 18. artikuluan egindako aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Robotiker Fundazioaren Patronatuak 1999ko abenduaren 15ean hartutako erabakiari jarraiki, Fundazioaren estatutuetako 18. artikuluan egindako aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, Robotiker Fundazioari irekitako erregistro-orrian inskribatzea, ebazpen honen zati nagusian jasota dauden Patronatuko bileretan hartutako erabakien, Patronatuaren eraketan egindako aldaketen eta patrono batzuen ordezkari pertsona fisikoen aldaketen inskripzioarekin batera. Horren egiaztagiria Robotiker Fundazioaren Patronatuko idazkaria den Julio Salazar Orive, Gamesa Innovation and Technology SLren ordezkari den pertsona fisikoak egin zuen Fundazioko lehendakari gisa Miguel Gandiaga Alberdi Ingeteam Corporación SAren ordezkari den pertsona fisikoaren oniritziarekin, Derion (Bizkaia) 2010eko otsailaren 23an, eta Bilboko notario Ignacio Alonso Salazar jaunak 2010eko martxoaren 5ean baimendu zuen eskriturari erantsita dago (protokolozenbakia: 445). 18. artikulu hori aipatu egiaztagirian jasota bezala geratzen da idatzita eta aipatu eskrituran kopiatuta.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del presente expediente de modificación estatutaria sobre la base de los artículos 36.3 y 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, y 4 del Decreto 100/2007, de 19 de junio, que aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco; el artículo 9.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos y el artículo 4.1 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– Al presente expediente se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación del artículo 18 de los Estatutos Fundacionales de la Fundación Robotiker, de Zamudio (Bizkaia).

Segundo.– Inscribir en la hoja registral abierta a la Fundación Robotiker en este Registro de Fundaciones del País Vasco, simultáneamente a la inscripción de las variaciones en la composición del Patronato adoptados en la reuniones de dicho órgano referidas en el cuerpo de la presente resolución y de las personas físicas representantes de varios Patronos, la modificación del artículo 18 de los Estatutos Fundacionales, de conformidad con el acuerdo adoptado por el Patronato de la Fundación Robotiker el día 15 de diciembre de 1999, según certificación expedida en Derio (Bizkaia) el día 23 de febrero de 2010 por D. Julio Salazar Orive, persona física representante de Gamesa Innovation and Technology, S.L., en el cargo de Secretario del Patronato de la Fundación Robotiker, con el visto bueno de D. Miguel Gandiaga Alberdi, en su condición de persona física representante de Ingeteam Corporación, S.A. en el cago de Presidente de la Fundación, e incorporada a la escritura, que lo eleva a público, autorizada por el Notario de Bilbao, D. Ignacio Alonso Salazar el día 5 de marzo de 2010, bajo su número de protocolo 445; quedando redactado dicho artículo 18 en los términos recogidos en el mencionado certificado y reproducidos en la matriz de la escritura reiterada.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 10a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá imponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.